

Euskadiren aukera

Bigarren postua eskuratzea du helburu, Madril mendean hartuta

Koldo Alduntzin / Donostia

HIRU urteren buruan, berriro Euskal Herrian jokatu da emakumezkoen Espainiako Autonomietako Selekzioen Txapelketa. Orain dela hiru urte Plentzian (Bizkaia) jokatu zen, eta gaur eta bihar Donostian jokatu da. Aurreko urteekin alderatuta, talderik indartsuena zelairatuko du Euskadik. Hamabostekoan, joan den astean Europako Txapelketa jokatu zuten sei neska ariko dira.

Bost selekzio ariko dira lehian: Katalunia, Madril, Euskadi, Galizia eta Aragoi. Liga sistema erabiliko dute, partida bakarrera. Denek denek kontra jokatu dute, eta sailkapenean bi talderen artean berdinketa gertatuz gero, *average* orokorrak erabakiko luke. Norgehiagokak 40 minutukoak izango dira, 20 minutuko bi zatirekin. Neurketa guztiak Anoetan izango dira ikusgai.

Gaurko partidak: Madril-Aragoi (10:00), Katalunia-Galizia (10:45), Aragoi-Euskadi (11:30), Galizia-Madril (12:15) eta Euskadi-Katalunia (13:00). Biharkoak, berriz: Aragoi-Galizia (10:00), Madril-Euskadi (10:45), Aragoi-Katalunia (11:30), Euskadi-Galizia (12:15) eta Katalunia-Madril.

Ezbairik gabe Katalunia da sendoena, azken lau urteota-



KOLDO ALDUNTZIN

Euskadiko aurrelariak atzoko entrenamenduan. Uztartze-laxoa antolatzen baloiaekin, Ioana Barrena Elorrikoa.

ko txapelketa bera izan baita. Bigarren Madril eta hirugarren Euskadi. Halere, gero eta alde gutxiago dago Madril eta Euskadiren artean, eta horixe da, hain zuzen, euskaldunen helburua aurrean: Madril menperatzea.

Lau urteotan Madril nagusitu da: 20-0 (1995), 5-20 (Plentzia, 1996), 16-0 (1997) eta 14-7 iaz. Kataluniak, berriz, 10-0 irabazi zion iaz Euskadiri. Aurrean, 15-0 irabazi zion Euskadik Madrili Sevillako torneoan.

Getxo Arteak eta Gaztedi ardatzak

Kepa Ancin eta David Etxarrik —gizonezkoen Getxo Arteako jokalaria— 25 jokalaria sartu dituzte deialdian. Getxo Arteako zortzi: Korman, Martinez, Estanyol, Alegria, Rodriguez, Uzeta eta Mari Mar eta Nerea Martinez de Miguel. Gaztedikoak (Gasteiz) sei dira: Uriarte, Fernandez, Moreno, Bartolome, Elorza eta Martinez de Cores. Kakarraldo taldekoak

(Plentzia) hiru: Naiara Moreno, Garcia eta Salazar. Durangokoak hiru: Loiti, Sagar-dui eta Lasa. Elorrikoak ere hiru dira: Eider eta Ioana Barrena eta Fernandez. Eibartik Arrate de Marcos, eta Zarautz taldeak Zulaika.

Zarautzen entrenatu ziren atzo. Ancinek hauxe esan zigun: «Jokalaria batzuei sinestea falta zaie, baina Madrili irabazteko moduan gaude». Bestalde, kadeteak eta jubenilak Valentzian ariko dira.

Getxok azken txanpa gogorra egin beharko du; gaur Quesos hartuko du

K. Alduntzin / Donostia

MONTJUICEN 26-15 galduta, Getxo Arteak aukera polita galdu zuen Ohorezko Ligako azken txanpari lasaixeago ekiteko, eta orain presio handiagorekin jokatu beharko du. Bihar, 18. jardunaldiko norgehiagoka izango du, Faturan (12:00). Quesos Entrepinares liderra izango du bisitari.

Valladolideko taldea sailkapenburu sendoa da, hiru puntuko aldea kentzen baitio Sevillako Monte Cienciasi. Hain zuzen ere, azken jardunaldian elkarren kontra jokatu zuten talde bi horiek, eta Quesos Entrepinares gailendu zen: 15-13. Gainera, gaztelarrek partida bat soilik galdu dute txapelketa osoan, eta hori El Monteren kontra izan zen, joanekoan.

Santboianari, berriz, bost puntuko aldea kentzen diote gaztelarrek. Kontuan hartuta liga amaitzeko bost jardunaldi falta direla, bistan da Valladolidekoak titulua ziurtatzera helduko direla Faturan. Quesosek Getxok baino 19 puntu gehiago ditu, eta bien arteko alde nagusia defentsan datza, bizkaitarrei 272 tanto gehiago egin baitizkiete.

Seiren artean bi puntuko aldea

Getxotarrek lau partida jokatu dituzte erreskadan, behealdeko kontrario zuzenen aurka. Ondorioz, Oviedo eta Getxo 12 punturekin dira, eta Liceo, Universitario de Sevilla, Valencia eta Montjuic 10 punturekin. Valenciaren kontra bezain ongi aritzea nahi luke Jose Luis Martinez *Karra-k*, eta irudi ona ematea. Joanekoan 38-19 galdu zuen Getxok Pepe Rojo zelaian. Cesar Hernandez eta David Etxarri ez dira ariko.

Bestetik, Durangok Salamancan jokatu du bihar (12:30), Lehen Maila Berezira igotzeko lehen jardunaldian. Bera-Berak eta Ordiziak kanporaketa 2. partida dute Anoetan (17:30). Donostiarrak 10 puntuko aldea dute.

Donibane-Lohizunek liderra menderatu zuen

K. Alduntzin / Donostia

LAPURTARREK Nazional 1 utzi eta Elite 2rako jauzia egitea ez dute baztertzen, baina horretarako hiru kanporaketa gainditu beharko lituzkete. Hasteko, gaur Montelimarren kontra jokatu dute final-hamaseirenetako kanporaketa, Pamiers-en (20:00). Partida bakarrera izango denez, zelai neutraleran jardungo dute.

Jean-Pierre Beraudek eta Bruno Pinaquik hartu zuten entrenatzaile ardura sasoia- ren hastapenean, eta helburu nagusia —mailari eustea— lortu zuten, gora begiratu nahi dute doniban-

darrek. Iaz ere sailkatu ziren, baina Saint Paul les-Daxek kanporatu zituen, 15-11 galduta. Ligako azken partidari atxiki zuen Donibane-Lohizunek aitzinera egiteko txartela, Limoges mendean hartuta. Garaipen horri esker, Nazional 1eko 18. taldea izan da.

Montelimar 15. sailkatu da. Iaz ere sailkatu zen final-hamaseirenetarako, baina Lourdesek kanporatu zuen: 33-5. Ligan lehen multzoan jardun du. Bi aldiz izan zen Bigarren Mailako txapelketa (1979 eta 1984) eta B Multzoko final-laurdenetan aritu zen (1986).

Kolpaturik ez, eta denak prest jokatze

Montelimarren jokoaz, hauxe esan zuen Beraudek: «Aitzin-multzoak ez du alper zapaltzailearen jokoa egiten, baina oso mugikorra da. Zapaltzaile bikoa ona du, eta gibeletako korrikariak ditu». Bere taldeak egin behar lukeen jokoa honela ikusten du: «Ondo jokatze, defentsa birkokatu baino lehen egin behar da, hala eskatzen baitu joko modernoak».

Horretarako, aitzin-multzoak «soinkatzeetan [sorbaldarekin kargatu] tinko jardun behar du, baloiak bi-

zi-bizi liberatu eta erabili, kontrarioa gainditzeko». Liga oso gogorra izan da donibandarrentzat, kontrario sendoak izateaz gain bidaia luzeak egin behar izan baititu. «Lan handia egin genuen, azken bi hilabeteotan fisikoki behar bezala prestatuta egoteko», esan zuen Beraudek.

Larunbatean Coarrazeren kontra jokatu zuten lagunartekoa, eta 31-22 gailendu ziren. Ez dago kolpaturik, eta denak prest dira. Garai-leak Peyrehoraderen kontra jokatu du.

Bestalde, Baionak, Miarritzek eta Baigorriak bihar jokatu dute.